

JARDUERA

Lehenik eta behin, gure lana izango da instagrameko kontua eta webgunea kudeatzea. Pertsona bat arduratuko da argazkiak igotzeaz eta publizitatea egiteaz.

Erreserbei begira, bi aukera daude. Alde batetik, bezeroak berak web-an agertuko den egutegian erreserba egitea eskatuko zaion datuak bete beharko dute; datu horien artean eskatuko zaie :

Izena	
Abizenak	
Telefonoa	
Adina	
Egiteko jarduera	
NAN	
Argazkiak ateratzeko eta internetera igotzeko baimena (bai/ez)	

Beste aldetik, guri telefonoz deitzeko aukera izango dute, arazoak izanez gero edo webarekin gaizki konpontzen badira, guk erreserba egiteaz arduratuko gara. Hortaz aparte, webaren izaera zaintzeaz arduratuko da beste pertsona bat, instagramean igotako argazkiak argitaratuz bezeroak inspirazioa jasotzeko eta ikusteko zein aukera dauzkate lokalean egiteko, jarduera desberdinak eginez.

Webgunean, gure telefonoa agertuko da eta bezeroak izango dute aukera whatsapp-en bidez zalantzak galdetzeko, proposamenak botatzeko edo gure esateko erreserbak egin nahi dituztela, guk haien izenean webgunean jartzeko.

Gure negozioaren langileak (gu laurok) garbiketa egiteaz arduratuko dira ere bai. Aste bakoitzean birritan guk garbiketa sakona egingo dugu. Hala ere, bezero bakoitzak lokala utzi aurretik ziurtatu behar da sartu denean dena zegoen bezala utzi duela.

Halaber, gure lana ere izango da unibertsitateko ikalse kontseiluekin hitz egitea, eskoletako AMPAko taldeekin hitz egitea eta marketing-arloa egitea. Guzti hau egingo dugu gure izena herritarren artean ezagutzera emateko eta bezeroak lortzeko.

Gainera ere arduratu behar gara bezero bat sartu baino lehen dena prest egoteaz.